



**IKASTEREDUEN BILAKAERA
BORTZIRIETAKO IKASTETXEETAN
—2011-2012 ikasturtea —**

Patri Arburua Etxeberria
Bortzirieta Euskara Mankomunitateko teknikaria
2012ko uztaila

SARRERA

Bortzirietako Euskara Mankomunitateak bertako ikastetxeetako matrikulazio datuak biltzen ditu urtero, ikastereduen bilakaeraren jarraipena egiteko xede nagusiarekin. Beraz, txosten honetan 2011-2012 ikasturteko datuak gehitzeaz gainera, 1996-1997 ikasturteaz geroztik matrikulazio datuek eta ikastereduek izan duten bilakaera bildu ditugu.

Ondotik emanen diren datuak hobeki ulertze aldera, eman ditzagun Bortzirietako ikastetxeei buruzko hainbat datu. Haur Hezkuntzatik hasi eta unibertsitatera bitarteko ikasketak eskaintzen dituzten bederatzi ikastetxe dira:

Arantzan:

- Arantzako Ikastetxe Publikoa: Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBHko lehen zikloa; D eredia.

Beran:

- Ricardo Baroja Ikastetxe Publikoa: Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza; D eredia.
- Labiaga Ikastola: Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBHko lehen zikloa; D eredia.
- Jesusen Bihotza Ikastetxea: Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza; A eta B ereduak.
- Toki Ona Institutua: DBH, batxilergoak eta heziketa zikloak; A, B, D eta X¹ ereduak.

Etxalarren:

- Landagain Ikastetxe Publikoa: Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza; D eredia.

Igantzin:

- Igantziko Ikastetxe Publikoa: Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza; D eredia.

Lesakan:

- Irain Ikastetxe Publikoa: Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza; D eredia.
- Tantirumairu Ikastola: Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza; D eredia.

Bertzalde, Haur Hezkuntzako 0-3 urteko zikloa dela eta, batetik Berako Udalaren Mukixu Haur Eskola dago, euskarazko eredia baizik eskaintzen ez duena. Bertetik, Jesusen Bihotza Ikastetxeak zabaldu berria du ziklo horren eskaintza, baina ez dugu horri buruzko informazio ofizialik. Lesakako kasuan, bai Tantirumairu Ikastolak bai Irain Ikastetxe Publikoak 2 urteko gelaren zerbitzua eskaintzen dute, D eredian. Azkenik, Arantzan Udalak Pelle-Ttiki ludoteka eskaintzen du 1 eta 2 urteko haurrentzat, eta hori ere euskaraz. Datu zehatzik ez dugunez, txosten honetan ez dugu ziklo hori aintzat hartu.

¹ X eredia deitzen diogu heziketa zikloetan ematen duten ereduari; gero datoz azalpenak.

DATU OROKORRAK

2011-2012 ikasturtean, Bortzirietako bederatzi ikastetxeetan banatuak, 1.225 ikasle izan dira, 3 urtetik unibertsitatera bitarteko ikasketak egiten. Hezkuntzaren ziklo ezberdinak kontuan hartuta, honela banatu dira:

	A	B	D	X	GUZTIRA
HH GUZTIRA	6	12	258		276
%	2,17	4,35	93,48	0,00	100,00
LH GUZTIRA	11	54	472		537
%	2,05	10,06	87,90	0,00	100,00
DBH GUZTIRA	18	34	236		288
%	6,25	11,81	81,94	0,00	100,00
BATX GUZTIRA	0	0	75		75
%	0,00	0,00	100,00	0,00	100,00
HZ GUZTIRA	0	0	0	49	49
%	0,00	0,00	0,00	100,00	100,00
GUZTIRA	35	100	1041	49	1225
%	2,86	8,16	84,98	4,00	100,00

Ondoko taulan ikastetxe bakoitzaren datuak emanen ditugu, eskaintzen dituzten ikastereduen arabera:

	A	B	D	X	GUZTIRA
Arantza I.P.	0	0	52	--	52
Labiaga Ikastola	0	0	172	--	172
Ricardo Baroja I.P.	0	0	188	--	188
Jesusen Bihotza Ikast.	17	66	0	--	83
Landagain I.P.	0	0	68	--	68
Igantzi I.P.	0	0	64	--	64
Irain I.P.	0	0	122	--	122
Tantirumairu Ikastola	0	0	98	--	98
Toki Ona Institutua	18	34	277	49	378
GUZTIRA	35	100	1041	49	1225
%	2,9	8,2	85,0	4,0	100,0

HAUR HEZKUNTZA

Haur Hezkuntza, 3 eta 6 urte bitarteko zikloa, herri guztietan ematen da, eta, zehazkiago, ikastetxe hauetan: Arantzako Ikastetxe Publikoa, Berako Ricardo Baroja

Ikastetxe Publikoa, Jesusen Bihotza Ikastetxea, Labiaga Ikastola, Etxalarko Landagain Ikastetxe Publikoa, Igantziko Ikastetxe Publikoa, Lesakako Irain Ikastetxe Publikoa eta Tantirumairu Ikastola. Jesusen Bihotza Ikastetxean A eta B ereduak eskaintzen dira, eta gainerako guztietan D ereduak bakarrik. Azken ikasturtean guztira 276 ikasle izan dira.


Hona hemen bildutako datuak:

	A	B	D	GUZTIRA
HH1	1	6	98	105
HH2	5	3	72	80
HH3	0	3	88	91
GUZTIRA	6	12	258	276
%	2,17	4,35	93,48	100,00

Ikus dezagun orain azken urteotako bilakaera zein izan den:

%	A	B	D
1996-1997	0.0	15.8	84.1
1997-1998	0.0	14.1	85.9
1998-1999	2.3	12.3	85.4
1999-2000	3.3	9.3	87.4
2000-2001	3.4	7.9	88.7
2001-2002	2.4	10.0	87.6
2002-2003	3.4	12.6	84.0
2003-2004	4.9	11.7	83.4
2004-2005	3.5	11.4	85.1
2005-2006	2.9	11.2	85.9
2006-2007	3.3	9.9	86.8
2007-2008	1,5	7,3	91,2
2008-2009	0,6	8,4	91,0
2009-2010	0,3	8,5	91,2
2010-2011	1,8	7,1	91,1
2011-2012	2,2	4,3	93,5

Ikus daitekeenez, D ereduaren inoizko daturik altuenak atera dira ikasturte honetan. 2007-2008 ikasturtean igoera nabarmena izan zen D ereduaren alde, % 90aren muga gaindituz, eta geroztik lau urtetan ehunekoari eutsi bazaio ere, azken ikasturte honetan berriz bi puntu pasatxoko igoera izan du. Joera horrekin jarraituz gero, hurrengo urteetan LHn ere D eredurantzko aldaketak sumatu ahal izanen dira. D ereduak izan dituen irabaziak nagusiki B ereduaren kaltetan izan dira. Ikus dezagun grafikoki:



LEHEN HEZKUNTZA

Lehen Hezkuntza ere, 6 eta 12 urte bitartekoa, herri guztietan ematen da, eta, zehazkiago, ikastetxe hauetan: Arantzako Ikastetxe Publikoa, Berako Ricardo Baroja Ikastetxe Publikoa, Jesusen Bihotza Ikastetxea, Labiaga Ikastola, Etxalarko Landagain Ikastetxe Publikoa, Igantziko Ikastetxe Publikoa, Lesakako Irain Ikastetxe Publikoa eta Tantirumairu Ikastola. Jesusen Bihotza Ikastetxean A eta B ereduak eskaintzen dira, eta gainerako guztietan D ereduak bakarrik. Azken ikasturtean guztira 537 ikasle izan dira. Hona hemen 2011-2012 ikasturteari dagozkion datuak:


	A	B	D	GUZTIRA
LH-1	2	12	91	105
LH-2	1	8	84	93
LH-3	4	6	81	91
LH-4	1	8	67	76
LH-5	2	11	62	75
LH-6	1	9	87	97
GUZTIRA	11	54	472	537
%	2,05	10,06	87,90	

Urte batetik bertze D ereduak hiru hamarren galdu ditu, B ereduaren mesedetan. Ikus dezagun grafikoan:

	A	B	D
1996-1997	4,6	15,7	79,6
1997-1998	2,1	14,5	83,4
1998-1999	0,7	13,5	85,7
1999-2000	1,2	13,5	85,3
2000-2001	1,3	12,2	86,5
2001-2002	2,6	11,7	85,7
2002-2003	3	11	86

2003-2004	2,8	9,5	87,7
2004-2005	4,1	10,4	85,5
2005-2006	3,8	8,7	87,5
2006-2007	2,7	9,2	88,1
2007-2008	3,6	9,8	86,6
2008-2009	2,9	10,5	86,6
2009-2010	3,1	10,1	86,7
2010-2011	2,0	9,8	88,2
2011-2012	2,0	10,1	87,9

Azken hamarkada honetan D eredu bere horretan dagoela erraten ahal dugu, bi puntu goitibeheiti, % 90ean sabaia joz. Ikusteke dago Haur Hezkuntza sumatu dugun hazkundeak zenbateko eragina izanen duen ondoko urteetan Lehen Hezkuntza. Halere, kontuan hartu behar da A eredu bizpahiru haur sartzeak ehunekoak erabat aldatzen dituela. Hauxe da bilakaeraren grafikoa:



DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA


DBH Bortzirietako hiru ikastetxetan ematen da. Osorik ematen da Toki Ona institutuan; A, B eta D ereduetan. Arantzako Ikastetxe Publikoan DBHko lehen zikloa ematen da, D eredu; ikasle horiek bigarren zikloa egitera Toki Ona institutura joaten dira. Berako Labiaga Ikastolan ere ematen dute DBHko lehen zikloa, D eredu; bigarren zikloa egitera Toki Ona institutura joaten dira ikasle gehienak.

	A	B	D	GUZTIRA
DBH-1	2	10	58	70
DBH-2	8	8	50	66
DBH-3	5	6	74	85
DBH-4	3	10	54	67
GUZTIRA	18	34	236	288
%	6,25	11,81	81,94	0,00

Hauxe da DBHk azken urteotan izan duen bilakaera:

	A	B	D
1996-1997	34,5	3,9	61,5
1997-1998	29,7	5,9	64,4
1998-1999	24,4	8,2	67,3
1999-2000	14,6	10,8	74,6
2000-2001	6,2	12	81,8
2001-2002	5,2	10,7	84,1
2002-2003	1,6	10,8	87,4
2003-2004	2,8	10,8	86,4
2004-2005	3,3	11,9	84,8
2005-2006	5	12,4	82,6
2006-2007	7,4	11,6	81
2007-2008	4,8	12,8	82,4
2008-2009	7,0	12,4	80,6
2009-2010	5,2	9,7	85,1
2010-2011	7,3	9,5	83,2
2011-2012	6,3	11,8	81,9

DBHn D ereduak azken urteotan ez du aldaketa handirik izan. Ematen du 2002-2003 ikasturtean % 87an goia jo zuela, eta geroztik % 80ko muga gaindituta bere lekua egin duela.



Datu hauei bertze gogoeta bat gehitu behar zaie, zenbaki absolutuetan oinarritutakoa. DBHko 288 ikasleetatik 18 A ereduan ikasten ari dira. Ez dugu jakiterik ikasle horien familia hizkuntza euskara ote den, baina pentsatzekoa da

kasurik gehienetan ez dela hala izanen. Gutxienez, datu objektibo modura erran dezakegu ikasle horiek ez dutela euskaraz ikasten, eta segur aski ez dutela beren adinkideekin elkarrizketa informaletan euskaraz aritzeko mailarik izanen. Eta horrelakoetan gertatu ohi denez, elkarrizketa horiek gaztelaniara lerratuko dira. Interesgarria litzateke institutuan horrelako egoerei erreparatzea, erabilera neurtzea eta ondorio batzuk ateratzea.

BATXILERRAK

Batxilerrak Bortzirietan Berako Toki Ona Institutuan ematen dira. Hiru espezialitatetakoak ematen dira: Natur eta Osasun Zientziak eta Batxiler Teknikoa batetik, eta bertzetik Giza eta Gizarte Zientziak. Gaur egun batxilerrak D ereduan bakarrik ematen dira.

Azkeneko ikasturte honetan ikasle kopuru hauek ibili dira:

	D
GB-1	16
GB-2	13
BNT-1	21
BNT-2	25
GUZTIRA	75

HEZIKETA ZIKLOAK

Heziketa Zikloak Toki Ona Institutuak eskaintzen ditu. Honakoa da eskaintza: Makineria eta Linea Eroanbideen Instalazioa eta Mantenimendu Elektromekanikoaren Erdi Mailako Heziketa Zikloa, eta Industri Ekipoen Mantenimendurako Goi Mailako Heziketa Zikloa.

Hasierako oin oharrean erran dugun bezala, heziketa zikloetan ez dago eredurik. Ziklo horietan ez da eredurik eskaintzen, eta ofizialki eredurik ez da existitzen ere; hau da, gaztelaniaz eman ohi den eredu da. Horregatik, X deitu diogu ziklo horietan ematen den hizkuntza ereduari.

Guztira 49 ikasle aritu dira azken ikasturteotan heziketa zikloetan:

	X
EMHZ-1	13
EMHZ-2	10
GMHZ-1	17
GMHZ-2	9
GUZTIRA	49

BERAKO EGOERA

Erran dugun bezala, Bera kenduta, gainerako herrietan ikastetxe guztietan eskaintzen den ikasteredu bakarra D da. Beran, aldiz, Haur Hezkuntzatik hasita A, B nahiz D ereduak eskaintzen dira. Horregatik, atal honetan herri honi dagokion azterketa berezia ere egiten dugu, batez ere HH eta LHri dagokiona.

Haur Hezkuntzaren kasuan, azken ikasturteak honako datu hauek utzi dizkigu:


	A	B	D	GUZTIRA
HH-1	1	6	44	51
HH-2	5	3	41	49
HH-3	0	3	45	48
GUZTIRA	6	12	130	148
%	4,1	8,1	87,8	

Haur Hezkuntzak Bortzirietan ematen dituen datuez aritu garenean aipatu dugu D ereduak igoera nabarmena izan duela aurten. Hori Berako kasuan ere islatu da. Laugarren urtez jarraian gertatu da hori, eta iaiztik honat, gainera, igoera lau puntu pasakoa izan da. D ereduak izan duen irabazia B ereduaren kaltetan izan da.

%	A	B	D
1996-1997	0	29,4	70,6
1997-1998	0	33,3	66,7
1998-1999	5,5	29,2	65,3
1999-2000	7,2	20,5	72,3
2000-2001	7,2	16,3	76,5
2001-2002	4,7	19,8	75,5
2002-2003	6,6	24,5	68,9
2003-2004	9,1	21,6	69,1
2004-2005	6,7	21,8	71,4
2005-2006	5,8	22,1	72,1
2006-2007	6,6	19,7	73,8
2007-2008	3,2	16	80,8
2008-2009	1,4	19,3	79,3
2009-2010	0,7	17,4	81,9
2010-2011	3,4	13,4	83,2

2011-2012	4,1	8,1	87,8
------------------	-----	-----	------

Ikus dezagun grafikoan:



Eta **Lehen Hezkuntza** datu hauek bildu ditugu 2011-2012 ikasturtean:


	A	B	D	GUZTIRA
LH-1	2	12	39	53
LH-2	1	8	37	46
LH-3	4	6	33	43
LH-4	1	8	26	35
LH-5	2	11	26	39
LH-6	1	9	39	49
GUZTIRA	11	54	200	265
%	4,2	20,4	75,5	

Ondoko taulak erakusten digun bezala, Berako datuak bakarrik hartuz gero, Lehen Hezkuntza ez dugu aldaketa handirik sumatzen. Badirudi D eredu % 73-77ko tartean dagoela, eta B eredu % 18-20ko tartean. A eredu aldaketa gehiago sumatzen dira. Kontuan hartu behar dugu zenbaki absolutuetan 50 ikasleren bueltan gabiltzala, eta beraz bizpahiru ikasle goitibeheiti portzentajeak aldatu egiten direla:

%	A	B	D
1996-1997	5,9	26,9	67,2
1997-1998	2,2	26,5	71,3
1998-1999	1,4	26,6	72
1999-2000	2,4	26,7	70,9
2000-2001	2,8	26,5	70,7
2001-2002	5,6	24,7	69,7

2002-2003	6,5	23,5	70
2003-2004	6	20,8	73,2
2004-2005	8,3	20,8	70,8
2005-2006	8,1	18,4	73,5
2006-2007	5,6	18,9	75,5
2007-2008	7,1	19,2	73,8
2008-2009	5,9	21,0	73,1
2009-2010	3,8	18,6	77,6
2010-2011	3,7	18,7	77,6
2011-2012	4,1	20,4	75,5

Ikus dezagun grafikaren bitartez:



Berako kasuan, halere, gogoeta portzentajeen ganean baino zenbaki absolutuen ganean egin behar dugu. Une honetan badira 3-12 urte bitarteko 17 neska-mutiko A ereduari matrikulatuak. Ez dugu inolako informaziorik haien jatorriaz, familia hizkuntzaz, A ereduari matrikulatzeko arrazoiei buruz, etab. Argi dagoena da eredu horretan haur-nerabe horiek ez dutela euskara ikasiko, eta segur aski horrek Beran gainontzeko adinkideekin bizitzeko eragozpenak ekarriko dizkiela. Baina alderantziz ere aurreikusi liteke arazoa: Berako bizitza sozialaren edozein alorretan euskaraz ez dakiten neska-mutiko horiek euskararen erabilera oztopatuko dute hainbatetan.